

# #ZINEQUIZ ZOZKETA FACEBOOKEN

## Parte-hartzearen oinarriak

### PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- 18 urtetik gorakoek parte har dezakete.
- Zozketan parte hartzeko, EZAE elkartearen Facebookeko orria jarraitu beharko dute, parte hartu aurretik 'Atsegin dut' klikatuz (dagoeneko jarraitzaile ez badira).
- Ezinbestekoa izango da eskatzen diren datuak betetzea: Izen-abizenak, emaila eta telefono zenbakia.

### ZOZKETAK

- Sari bikoitza zozketatuko da astero: zinemarako bi sarrera, sarituak aukeratzen duen EZAE elkarteko aretoan euskal edo europar film bakarra ikusteko ([link](#) honetan kontsulta ditzakezu aretoak).
- Lehiaketa ekainaren 30eko, osteguneko, 20:00ak arte egongo da zabalik.
- Zozketa uztailaren 1an, ostiralean, burutuko da Woobox aplikazioaren bitartez. Irabazlea eta ordezkoa zoriz aukeratuko dira erantzun zuzena eman duten parte-hartzaileen artean.
- Irabazleak EZAEren areto bat aukeratu beharko du bere sariaz gozatzeko. Behin zinema aukeratuta, bi sarrerak doan atera ahal izateko agiria helaraziko diogu irabazleari. Sarrerak aukeratutako aretoan eta saio bakarrean erabili ahal izango dira, bonoa jaso eta hilabete bateko epean.
- Parte-hartzaile bakoitzak behin bakarrik saritua izan daiteke EZAEk ekaina eta iraila bitartean egindako zozketetan.

### IRABAZLEEN KOMUNIKAZIOA

- Zozketa egin eta gero, irabazleekin jarriko gara harremanetan posta elektronikoz edo telefonoz.
- 15 eguneko epean erantzuten ez duenari txanda pasako zaio eta ordezkoarengana joko dugu; horrek ere erantzungo ez balu, 15 egunen buruan, saria eman gabe geratuko litzateke.

## **ADOSTASUNA**

Parte hartzearekin batera, aurrez adierazitako baldintzak onartzen ditu partaideak.

## **IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA**

Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dugu parte-hartzailearen datu pertsonalak EZAE elkartearen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, zozketako partaideen datuak kudeatzeko eta aurrerantzean EZAEren informazioa bidaltzeko helburuarekin. Partaideei jakinarazten diegu euren datuak ez dizkiegula hirugarren enpresei emango, eta datu horiek inori utzi aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldez aurretik. Legearen arabera, norbere datuak ikusteko, zuzentzeko edota baliogabetzeko aukera dute parte-hartzaileek, eta horretarako gurekin jar daitezke harremanetan [info@ezae.eus](mailto:info@ezae.eus) emailera idatziz.